

SARRERA

Txikitatik elkar ezagutzen dugun lau pertsonaz osatutako talde bat gara, eta kasualitatez haur hezkuntza ikasten amaitu genuen. Ikasturtean zehar gure artean hitz egiten, ideia bat sortu zitzaigun eta horrekin aurrera jarraitzea erabaki genuen. Gure negozio ideia hartzaindegi berezi bat montatzea izan zen.

Pausu handi hau egiteko oso zihur egon ginen eta gainera gure artean beti egon da konfiantza handia, beraz hau beste arrazoi handi bat izan zen ideia honekin jarraitzeko, lan talde ona osatzen baitugu.

Gure ideiak zeozer desberdina eduki beharko luke beste hartzaindegietatik bereizteko, lehiakideengatik desberdintzeko, gure balio proposamenaren oinarria izango zena. Familia askoren arazoa izaten da hautxoek gaixorik daudenean beste hartzaindegietara ezin dituztela eraman, beraz, sintoma jakin batzuk dituzten haurrentzat gure atea irekita egongo dira, noski, hartzaindegiaren zonalde espezifikiko bat izango genuke beraientzat gaixo ez dauden hurrekin kontaktua saiheztuz.

Bestalde, hurrek bertan gosaltzeko, askaltzeko, hamaiketako eta afaltzeko aukera eskainiko genuke. Gure helburua seme - alaben ardurapean egon ezin diren gurasoei laguntzea da. Ez litzateke hartzaindegi simple bat izango, berezitasun handi bat dauka besteen hartzaindegiak konparatuz eta uste dugu hau ideia ona dela eta gainera gurasoak lasaiago egongo dira. Gurasoen lana dela eta etxean geratzeko aukerarik ez dituztenak hona etortzeko aukera izango dute.

